

# ANTOLAMENDU JUDIZIALARI BURUZKO ONLINE

## IKASTARORAKO DEIALDIA

Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak Antolamendu Judizialari buruzko ikastaroa eskaintzen du, on-line modalitatean, lan-poltsetan daudenentzat, beren-beregi.

Baldintzak:

1. Ikastaroan **lehenetasuna izango dute** Justiziako Administrazioiko Kudeaketa, Izapideketa eta Laguntza Judizialeko kidegoetako lan-poltsan daudenek; zehazki, euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna edo goragokoa dutenek eta justizia administrazioan lan esperientziarik ez dutenek.
2. Automatrikula egiteko, posta elektronikoko bat bidali behar da helbide honetara: [justiziagela@aju.ej-gv.es](mailto:justiziagela@aju.ej-gv.es). Ikastaroan matrikulatzeko eskatu behar da, eskatzailearen datu guztiak jarri behar dira (**izena, abizenak eta NANA**) eta **posta elektronikoko helbide** bat adierazi behar da. Automatrikula e-mailez egiterik ez badago, fax bitartez egingo da (945 01 91 52).
3. Automatrikulatzeko epea argitaratzen denetik, urtarrilaren 16an itxiko da, 08:00etan.
4. Urtarrilen 17tik 18ra bitartean, posta elektronikoko bat bidaliko zaie ikastarorako onartu direnei. Erabiltzailea, pasahitza eta ikastaroan nola sartu adieraziko zaie posta horretan.
5. 200 plaza eskaintzen dira. Hautatzeko, bitartekoen lan-poltsako hurrenkerak izango du lehenetasuna.
6. Ikastaroa urtarrilaren 18an hasiko da, 16:00etan, eta otsailaren 17an amaituko da, 08:00etan. Epe horretan ikasleak online sar daitezke ikastarora.
7. Ikastaroa moduluz osatuta dago. Modulu bakoitza amaitzeko, autoebaluazio-test bat egin behar da. Test horri esker, ikasleak zenbat aurreratu duen jakingo du, eta moduluak behar beste errepikatzeko aukera izango du, modulua behar den moduan ulertu eta ikasi arte.
8. Azterketa egiteko eskubidea izateko, ikasleak **ikastaroak dituen modulu guztiak ikusi beharko ditu pantailan, eta ikastaroko test guztiak egin beharko ditu.**
9. Ikastaroa amaituta, **otsailaren 20tik 27ra bitartean**, ikastaroaren **azterketa (online)** egiteko epea irekiko da. Ikastaroa gaindituta, ordezkapenak egiteko deitu ahal izango zaie lan-poltsetan daudenei.